

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Aditz-sintagma

Adberbio-sintagma

Aditz-motak

Aditz multzoa

Ohi partikula

EAB 1

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

gure aditza modu erakargarrian aurkezteko beste ahalegin bat da.
Gaurko bitarteko digitalak baliatuz,
euskal aditza pantailara eraman nahi dugu;
eta pantailatik, ikusle-ikaslearen hizkuntza-corpusera.

HELBURU NAGUSIA

HIZKUNTZA ZUZENTASUNEZ ERABILTzea

«Hizkuntzaren elementu formal eta mekanismoei buruz hausnartzea, haren maila fonologiko, morfosintaktiko, lexiko-semantiko eta testualetan, eta mezuen ekoizpen eta harrera baldintzei buruz, komunikazioko gizarte-testuinguruetan, berezko ekoizpenak arautzeko gaitasuna garatzeko helburuz».

«Hizkuntzaren irakaskuntzak *Euskal hizkuntza eta literatura* arloaren mugak gainditzen ditu, hizkuntza ia curriculum osoan irakatsitako ikaskuntza guztien euskarri delako, eta eskolako ikaskuntza-prozesuak, neurri handi batean, hizkuntza-gaitasunaren garapenaren mende daudelako».

Oinarrizko curriculum-diseinua

EUSKAL ADITZARI BEGIRA

Aditz multzoaren egitura

AURKIBIDEA

Aditz-sintagma.....	3
Adberbio-sintagma.....	6
Aditz-motak.....	9
Aditz multzoa.....	11
<i>Ohi</i> partikula.....	15

ADITZ SINTAGMA

Aditzaren koadrila

<p>Adizlaguna eta aditzondoa aditzak adierazten duen ekintza noiz, nola edo non gertatu edo gertatzen den zehazteko daude perpausan.</p>	<p>Aditza perpaus guztietan dago; batzuetan agerian, beste batzuetan isilpean. Bera da perpausaren ardatza, osagai nagusia.</p> <p>Izen-sintagma NORI. Zeharkako objektu edo datibo ere deitzen zaio. Beti predikatuan agertzen da.</p>	<p>Izen-sintagma NOR ez da finkoa aditzaren koadrilan. Batzuetan, subjektua falta denean, subjektuarena egiten du. Baina, normalean, objektu zuzena izaten da.</p>
--	---	---

Asmatu aditz-sintagma koherenteak.

<i>(adlag.)</i>	<i>(ad.)</i>	<i>(adond.)</i>	<i>(IS NORI)</i>
Gogotsu	eragin dio	arratsaldean	danbolinari.
<i>(IS NOR)</i>	<i>(adond.)</i>	<i>(ad.)</i>	<i>(adlag.)</i>
<i>(adond.)</i>	<i>(adond.)</i>	<i>(adlag.)</i>	<i>(ad.)</i>
<i>(IS NOR)</i>	<i>(IS NORI)</i>	<i>(ad.)</i>	<i>(adlag.)</i>
<i>(IS NOR)</i>	<i>(ad.)</i>	<i>(adond.)</i>	<i>(IS NORI)</i>

HELBURUA

Adberbio-sintagma osatzen duten elementuak ezagutzea eta erabiltzen ikastea, ahoz eta idatziz.

EDUKIAK

Kontzeptuak: Adberbio-sintagma. Adizlaguna. Aditzondoa.

Prozedura: Nozioen aurkezpena. Adizlagun bila. Aditzondo bila.

EBALUAZIOA

—Hizkuntza-erabilera: testu-egitura, kohesioa, perpausen egitura, hitzen eraketa.

—Klasean proposatutako ekintzetan parte hartzeko orduan erakutsitako jarrera.

ZER EGIN

- a) Ikusi atala oso-osorik.
- b) 8. eta 9. orrialdeak fotokopiatu eta banatu. Ikasleko bana. Ariketa horiek etxean egiteko esango diegu.
- d) Klasean, ikus-entzunezkoan ikusitakoa finkatzeko, beste ariketa batzuk egingo ditugu:

Adizlagunaren atala finkatzeko, ikasle bati, adizlaguna daraman esaldi bat arbelean idazteko eskatu. Hori eginda, irakasleak beste ikasle bati ea zein den esaldiko adizlaguna galdetuko dio. Arbelera atera den ikasleak esango du erantzuna zuzena den ala ez, eta zergatik. Horrela, ikasle guztiak arbeletik pasa arte.

Ikasle bakoitzari adizlagun bana eman (batzuei kasu-marken bidez eraturakoa eta beste batzuei postposizio bidez eraturakoa), eta harekin esaldi bat osatzeko eskatu. Bost minutuko tartea eman eta esaldia ozenki esateko eskatu.

Aditzondoaren atala finkatzeko, ikus-entzunezkoan aritu diren aktoreak bezala ari gaitzke klasean ere. Aditzondo bat eman ikasle bakoitzari, eta haren ezaugarriak adierazteko eta esaldi bat osatzeko eskatu. Bost minutuko tartea eman eta idatzi dutena ozenki esateko eskatu.

Adberbio-sintagma

Aditzondoak

Aditzondoak ez du kasu-marken beharrik aditzaren ondora hurbiltzeko. Hiru eratako aditzondoak ditugu:

Osagai bakarrekoak. (aditzondo bakunak)

Hitz bati aditzondo-atzizkia erantsiz osatutakoak. (aditzondo eratorriak)

Osagai bat baino gehiago batuz eratutakoak. (aditzondo konposatuak)

Aditzondo-atzizkirik erabilienak: -ki, -ka, -ro, -to, -ik, -la.

Deskribatu aditzondoak. Eta idatzi esaldi bat aditzondo horrekin.

Alferrik	
FORMA ALDETIK: eratorria	SEMANTIKA ALDETIK: moduzkoa
Alferrik: (<i>alfer</i> + <i>-rik</i>) modu-aditzondo eratorria.	
Esaldia: Alferrik ibili zen lata ematen, ez zuen ezer ere lortu.	
Agudo	
FORMA ALDETIK:	SEMANTIKA ALDETIK:.....
Agudo:	
Esaldia:	
Nonbait	
FORMA ALDETIK:	SEMANTIKA ALDETIK:.....
Nonbait:	
Esaldia:	
Herenegun	
FORMA ALDETIK:.....	SEMANTIKA ALDETIK:.....
Herenegun:	
Esaldia:	
Berriro	
FORMA ALDETIK:	SEMANTIKA ALDETIK:
Berriro:	
Esaldia:	
Lehenbizi	
FORMA ALDETIK:	SEMANTIKA ALDETIK:
Lehenbizi :	
Esaldia:	

IZENA: MAILA:

	Jokatugabea	Iragangaitza	Perifraстикoa	NORK erakoa	Jokatua	NOR erakoa	Trinkoa	Iragankorra
X								
jakiteko								
joan da								
Ikusi du								
zatozte								
dakite								
ekarri du								
daramatzazue								
eman dizkio								
eramatea								
esan zion								
zebilen								
irakurri zituen								
joan zitzaion								
genekarren								
ikusteko								

IZENA:.....MAILA:.....

Aditz multzoa

Aditza delarik perpausaren ardatza, gainerako osagaiak bere ingurura biltzen dira, aditzaren multzoa osatzeko.

omen ote
al **aditza** ez
ba- ahal

ba-

XABIER —Hori **badakit**, bestea da ulertzen ez dudana.

Idatzi bost esaldi ba- osagaia erantsiz beheko aditzen adizki trinko bati.

ibili (*orainaldia*).....

ekarri (*orainaldia*).....

eraman (*lehenaldia*).....

egon (*lehenaldia*).....

joan (*orainaldia*).....

omen, ote, al

KRISTINA —Ba omen dago teknika bat liburu hori di-da batean irakurtzeko.

Txertatu omen, ote edo al eta idatzi esaldi berriak. Gero, hausnarketa egin esanahiaren aldatetaz.

Ez dakti zer, baina zerbait egiten badabil.

.....

Badator gure gaztea.

Nik atzo dirua baneukan.

.....

Honez gero nahikoa egur badago etxola barruan.

.....

①

KRISTINA —Etorriko al zarete bihar liburutegira?

KOLDO —Ni bai, ni joango naiz.

KRISTINA —Eta, zu?

XABIER —Ni? Baina, **ahaztu al zaizu** bihar nora noan?

KRISTINA —Zakurraren putza! Oraintxe gogoratu dut. Sentitzen dut, mutil.

XABIER —Lasai, ez da ezer.

KRISTINA —**Ba al dakizu** ze ordutan datorren?

XABIER —Zortzietarako hemen izango dela esan dit. **Iritsiko ahal da!**

KRISTINA —Ez zaitut oso seguru ikusten.

KOLDO —Joan den astean, **ez al zen** bederatzietan iritsi?

XABIER —Bai, neska. Ordu bete-betea egon nintzaion itxaroten. Tximista batek **joko ahal du!** Pentsatu nuen.

②

KRISTINA —Nahikoa izango **ote da** horrekin?

XABIER —Hala espero dut. Ez daukagu diru gehiago. **Ez ote da** iritsiko?

KRISTINA —Ez dakit; beldur naiz **ez ote dugun** kalkulua gaizki egin.

KOLDO —**Ba ote datoz** Uribetarrak?

XABIER —Etorriko ahal dira! Bestela, alferrik egingo dugu lan.

③

KOLDO —Aurten **ezkonduko omen dira**.

KRISTINA —A! Baina, ez al dute oraindik ezkon-eguna jarri?

KOLDO —Nik entzun dudana esaten dizut. Besterik ez dakit. Jatetxe bila ibili **omen dira, orain arte**.

KOLDO —Jakina! Jatetxerik gabe ez omen dago ezkontzerik.

KRISTINA —Hamar bat jatetxetan **galdetu omen dute**, eta ezer ez.

XABIER —Jonek deitu dit. **Ba omen dakite** noiz ezkonduko diren. Arratsaldean esango digutela.

KOLDO —Hara! Gure maitale sekretu zaleak!

Ohi partikula

Ohi partikula modala ikusitako partikula modalekin antz handia duelako sartu dugu saio honetan. Berez, ezin da aditz-multzoko osagaitzat hartu.

Ohi partikulak dagokion aditzari ohikotasun-zentzua ezartzen dio eta aditz laguntzailearen edo aditz trinkoaren aurre-aurrean jartzen da.

Kristina eta Susana furgoneta barruan daude. Susanak prismatikoak dauzka begietan.

KRISTINA —Alferra beti lantsu **esan ohi da**.

SUSANA —Bai, eta ez da egia txikia.

KRISTINA —Alferrak beti **aldarrikatu ohi du** nekea.

SUSANA —Bai, neska. Gizakiok alfertasunerako joera **izan ohi dugu**.

KRISTINA —Batik bat, alferrak zeinen ongi **bizi ohi diren** ikusita.

SUSANA —Norbait dator. Ander da. Ander Jaio.

KRISTINA —Ander Jaio? Ezinezkoa. Begiratu arretaz.

SUSANA —Ander da, bai. Eta Jonekin doa.

KRISTINA —Ea ulertzeko gai naizen: gaur asteartea da, eta Ander astearteetan bulegora **joan ohi da** eta han **eman ohi du** goiz osoa. Jon, berriz, astearteetan **ez ohi da ateratzen** etxetik. Berak hala **ohi dio** behintzat.

KRISTINA —Ez da erraza ulertzen. Ezkutuka dabilzala egingo nuke.

SUSANA —Zer ote daukate ezkutatzeko? Ai neska, honela hasten garenean, normalean **ikusten ohi ez duguna** ikusten dugu. Ez dakit oso zuzena den egiten ari garena. Tabernan sartu dira.

KRISTINA —Zuzen-zuzena ez da. Hori badakit. Baina, badu zerbait bestelako lanek **izan ohi ez dutena**. Halako zirrara moduko bat eragiten duena.

SUSANA —Ai! Kristina. Gauza horren izena aspaldi asmatu zen.

KRISTINA —Bai, ote?

SUSANA —Bai, Kristina, bai. Gauza gozo horren izena, morbo da.

KRISTINA —Hara! Susana. Zorrotza sentitzen zaitut, **ohi ez bezala**.

SUSANA —Zorrotza ez, zentzudun. Zu, ordea, **ohi bezala**, kaskarin.

Liburuak

ZUBIRI, Hilari ; ZUBIRI, Entzi: *Euskal gramatika osoa*, Didaktiker, Bilbo, 2000.

ZUBIZARRETA, Aitor; DORRONSORO, Mikel; ZUBIMENDI, Josemari: *Gramatika gaitasuna lantzen*, Euskara Zerbitzua, Glotodidaktika-lanak. Gasteiz, 2000.

EUSKALTZAINDIA: *Euskaltzaindiaren arauak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1994.

Orri elektronikoa

www.hiru.com

Euskal Aditzari Begira

Aditz multzoaren egitura

Adizki jokatuqabeak -I-

Adizki jokatuqabeak -II-

Adizki jokatuqabeak -III-

Adizki jokatuqabeak -IV-

Adizki jokatuak -I-

Adizki jokatuak -II-

Adizki jokatuak -III-

Aqintera, baldintza eta aditz arazleak

Aditz-lokuzioak

Zenbait aditz bihurri

Ekoizlea:



Getaria, 18-behea
01010-Gasteiz

Tel-faxa: 945200608

artez@ikusentzunezkoa.euskalnet.net

www.artez-bai.com

LG.- VI- 461 / 08

Ikasmaterial honek
Hezkuntza, Unibertsitate
eta Ikerketa Sailaren
egokitasun-aitormena du.

2008/12/18